

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

Tolosako Alkateak 2023ko otsailaren 28ko 2023/442 Dekretuaren bidez, hasierako onespina eman zion Tolosako Udalak helburu honekin diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari: «Tolosako udalerrian eta Apatta-erreak kokatuta dauden eta gehienez 50 langile dituzten enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapena egitea. Tolosako Udalak Diru-laguntza horiek norgehiagokako erregimenaren bidez egingo da».

Erabaki horretan xedatu zen onartutako araudia behin betikotzat onartuztat joko zela, jendaurreko tramitean alegaziorik aurkeztu ezean.

Ordenantza hau hogeita hamar laneguneko epean jendaurrean jarri zen, 2023ko martxoaren 8an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zen aurkeztu inolako alegazio, iradokizun edota erreklamaziorik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeraren 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratu arte ez dela indarrean sartuko aipatuz.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jarzeko kalterik gabe.

Tolosa, 2023ko maiatzaren 4a.—Olatz Peon Ormazabal, alkatea. (3302)

Ordenantza, Tolosako Udalak helburu honekin diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak arautzen dituena: Tolosako udalerrian eta Apatta-erreak kokatuta dauden eta gehienez 50 langile dituzten enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapena egitea. Diru-laguntza horiek norgehiagokako erregimenaren bidez emango dira.

Aurkibidea.

1. Oinarri espezifikoak arautzen dituen ordenantzaren xedea.
2. Enpresa onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.
3. Eskabideak aurkezteko modua eta epea.
4. Diru-laguntzak emateko prozedura.
5. Proiektuak baloratzeko irizpide eta balioespina.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Anuncio

La alcaldesa del Ayuntamiento de Tolosa, por Decreto 442/2023 del 28 de febrero de 2023, aprobó inicialmente de la modificación de la «Ordenanza específica reguladora para la concesión por parte del Ayuntamiento de Tolosa de subvenciones para la realización de de proyectos que den impulso a los desarrollos experimentales, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios, para empresas radicadas en el ámbito municipal de Tolosa y Apatta-Erreka con 50 o menos trabajadores y trabajadoras, mediante el procedimiento de régimen de concurrencia competitiva».

En dicho Acuerdo se establecía que el Reglamento aprobado se consideraría definitivamente aprobado, salvo que durante el trámite de información pública se presentaran alegaciones.

La presente Ordenanza fue sometida a información pública durante el plazo de treinta días, hábiles, mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 8 de marzo de 2023, sin que se presentara alegación, sugerencia o reclamación alguna.

De conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en el presente anuncio se publica como anexo el texto íntegro de la Ordenanza, con indicación que no entrará en vigor hasta la publicación del texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra el presente Acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Tolosa, a 4 de mayo de 2023.—La alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal. (3302)

Ordenanza específica reguladora para la concesión por parte del Ayuntamiento de Tolosa de subvenciones para la realización de proyectos que den impulso a los desarrollos experimentales, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y a su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios, para empresas radicadas en el ámbito municipal de Tolosa y Apatta-Erreka con 50 o menos trabajadores y trabajadoras, mediante el procedimiento de régimen de concurrencia competitiva.

Índice.

1. Objeto de la Ordenanza reguladora de las presentes subvenciones.
2. Requisitos que deben reunir las empresas beneficiarias para obtener la subvención.
3. Forma y plazo de presentación de solicitudes.
4. Procedimiento de concesión.
5. Criterio y valoración de los proyectos.

6. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa.
7. Ordaintzeko modua.
8. Justifikatzeko kontu erraztua.
9. Diru-laguntzaren bateragarritasuna.
10. Dokumentazioa.
11. Organo eskudunak diru-laguntza emateko prozedura instruitu eta ebazteko.
12. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea.
13. Emandako diru-laguntzen publizitatea.
14. Emandako diru-laguntza justifikatzeko epe arrunta.

15. Ez-betetzea eta administrazio-zigorak diru-laguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura.
16. Ahalmena.

1. artikulua. *Oinarri espezifikoak arautzen dituen ordenantzen xedea.*

Ordenantza honen xedea da arautzea Tolosako Udalak helburu honetarako diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak arautzen dituena: Tolosako udalerrian eta Apatta-erreak kokatuta dauden eta gehienez 50 langile dituzten enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bulzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioeztapena egitea. Diru-laguntza horiek norgehiagokako erregimenaren bidez emango dira.

2. artikulua. *Enpresa onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.*

Diru-laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako debekuetan sartuta ez dauden pertsona fisiko edo juridikoek zein ondasun-erakundeek.

Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Lantokiren bat izatea Tolosako udal-esparruan edo Apatta-Erreakan.
- b) Plantilan gehienez 50 langile izatea azken 6 hilabeteetan.
- c) Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Legeak aurreikusitako diru-laguntzak jasotzeko debekua duten egoeretakoa batean ez egotea.
- d) Enpresak, Jarduera Ekonomikoaren Zergaren (JEZ) erroldan alta emanda egotea.
- e) Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatuko beharko da.

Honako hauek ezingo dute parte hartu edo entitate onuradunen izateatik kanpo geratuko dira:

- 1.a. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- 1.b. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoia direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.
- 1.c. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun-

6. Cuantía máxima de la subvención.
7. Forma de Pago.
8. Cuenta justificativa simplificada.
9. Compatibilidad de la subvención.
10. Documentación.
11. Órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención.
12. Contenido y plazo en que será notificada la resolución.
13. Publicidad de las subvenciones concedidas.
14. Plazo ordinario de la justificación de la subvención concedida.
15. Incumplimiento y sanciones administrativas en materia de subvenciones. Procedimiento sancionador.
16. Habilitación.

Artículo 1. *Objeto de la Ordenanza reguladora de las presentes subvenciones.*

El objeto de la presente ordenanza es regular el conjunto de subvenciones a otorgar por el Ayuntamiento de Tolosa, para la realización de proyectos que den un impulso a los desarrollos experimentales, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y a su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios, para empresas radicadas en el ámbito municipal de Tolosa y Apatta-Erreka con 50 o menos trabajadores y trabajadoras, mediante el procedimiento de régimen de concurrencia competitiva.

Artículo 2. *Requisitos que deben reunir las empresas beneficiarias para obtener la subvención.*

Podrán acceder a estas subvenciones las personas físicas o jurídicas y comunidades de bienes que no se hallen incursas en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la L.G.S.

Además, deberá de cumplir los siguientes requisitos:

- a) Disponer de un centro de trabajo en el ámbito municipal de Tolosa o en Apatta-Erreka.
- b) Contar con un máximo de 50 trabajadores en plantilla en los últimos 6 meses.
- c) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que determinan la prohibición de acceder a las subvenciones previstas en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, de Igualdad.
- d) Que las empresas estén dadas de alta en el padrón del Impuesto de Actividad Económica (IAE).
- e) La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios, notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada.

No podrán participar o quedarán excluidas de la condición de entidades beneficiarias:

- 1.a. Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos, vulneren el principio de igualdad de mujeres y hombres.
- 1.b. Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas en vía administrativa, laboral, o penal de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.
- 1.c. Entidades o empresas que no cumplan los requisitos establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad

nerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.

1.d. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio multipleko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiet buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterrria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arauzteko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

Laguntza hauetatik kanpo gelditzen dira aholkularitza eta giza baliabideen arloko enpresak.

3. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

Eskabideak zuzenean izenpetuko dira edo, bestela, zuzenbidean baliaduna den edozein bidetatik beren ordezkaritza frogatzen duten pertsonen izenpetuko dituzte.

Eskabidea egiteko ereduak deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea izango da deialdi bakoitzean zehazten dena.

4. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura izango da norgehiagoka, hau da, Tolosako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoa.

5. artikulua. Proiektuak baloratzeko irizpide eta balioespena.

A) Proiektuaren justifikazio-memoria, 10. artikuluan ageritzen diren atalak sartuta dituela: 25 puntu.

B) Baloratu da Proiektuak ze lotura duen Euskadiko Zientzia eta Teknologiako Planarekin, eta zehazki, lehentasunezko arlo eta teknologiek: 15 puntu.

– Biozientzia eta Osasuna.

– Energia.

– Fabrikazio aurreratua.

– Elikadura.

– Ekosistemak.

– Giza Habitata.

– Industria kultural, sortzaile eta digitalak.

C) Proiektuak eragiten du enpresaren lehia-hobekuntzan, produktu berriak sortuta edo merkatu berrietan sartuta: 10 puntu.

D) Proiektuak eragiten du enpresaren lehia-hobekuntzan prozesuetan eta / edo bere produktuen hobekuntzan: 10 Puntu.

E) Proiektuaren alderdi berritzailea: 13 Puntu.

F) Proiektuaren plangintza: 6 puntu.

G) Behar diren baliabideen eta proposatutako helburuen arteko koherentzia: 10 Puntu.

H) Proiektuak genero ikuspegia kontuan hartzea: 5 puntu.

de Mujeres y Hombres y para una vida libre de violencia machista contra las mujeres.

1.d. Tampoco serán objeto de subvención las actividades que supongan discriminación por razón de sexo o por factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurren otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, el idioma, la religión, la opinión política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.

Se establece la prohibición de los artículos 4, 3.1 y 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, 13.3 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, 50.5 del Decreto Legislativo 1/1997 y 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.

Quedan excluidas de estas ayudas las empresas de consultoría y recursos humanos.

Artículo 3. Forma y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes se suscribirán directamente o por personas que acrediten su representación por cualquier medio válido en derecho.

En las correspondientes convocatorias se establecerán los modelos pertinentes de solicitud.

El plazo de presentación de solicitudes será el que se establezca en la convocatoria.

Artículo 4. Procedimiento de concesión.

El Procedimiento de concesión de la subvención será en régimen de concurrencia competitiva, previsto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.

Artículo 5. Criterio y valoración de los proyectos.

A) Memoria justificativa del proyecto que incluya los apartados especificados en el artículo 10.25 puntos.

B) Se valorará la relación del proyecto con el Plan Vasco de Ciencia y Tecnología, mas en concreto en las áreas y tecnologías prioritarias: 15 puntos.

– Biociencia y Salud.

– Energía.

– Fabricación avanzada.

– Alimentación.

– Ecosistemas.

– Hábitat Humano.

– Industrias culturales, Creativas y Digitales.

C) El proyecto incide en la mejora competitiva de la empresa con la creación de nuevos productos o acceso a nuevos mercados: 10 puntos.

D) El proyecto incide en la mejora competitiva de la empresa en procesos y/o en la mejora de sus productos: 10 puntos.

E) Factor innovador del proyecto: 13 puntos.

F) Planificación del proyecto: 6 puntos.

G) Coherencia entre recursos necesarios y objetivos propuestos: 10 puntos.

H) Incorporación de perspectiva de género en el proyecto: 5 puntos.

- I) Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria: 3 puntu.
- J) Plantilan aldi baterako kontratuak < % 20: 3 puntu.

6. artikulua. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa.

Diru-laguntzen zenbatekoak urteroko deialdi bakoitzean adieraziko dira, beti ere kontuan harturik zein den diru-laguntzak egotzi beharreko kredituek duten muga, muga hori izango baita gehieneko zenbatekoa.

Eskatzaile bakoitzari eman dakioken diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa, deitutako zenbatekoaren barruan, ezingo da izan proiektuaren kostuaren % 75 baino handiagoa, ezta hiru mila eurotik (3.000 €) gorakoa ere.

Puntuaren balioa honela kalkulatuko da: ezarritako diru-laguntzaren zenbateko osoa zati onartutako eskabideen multzoari emandako puntuak.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da. Lehen zatia, emandako diru-laguntzaren % 50 izango dena, eta bigarrena, azkenean emango dena, egindako gastua frogagiriak aurkezten direnean.

7. artikulua. Ordaintzeko modua.

Diru-ekarpenak eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren egingo dira, era honetan:

- Lehen ordainketa, % 50, 10. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.
- Bigarren ordainketa, gainerako % 50, 8. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

8. artikulua. Justifikatzeko kontu erraztua.

- 1. Justifikazio-kontuak honoko informazio hau izango du:

1.1. Jarduera-memoria bat dirulaguntza ematen ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.

1.2. Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan sailkatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Aurreko artikuluan adierazi bezala justifikatu behar da.

1.3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehaztu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

1.4. Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.

2. Organo emaileak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gainera arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratu. Dagokion deialdian zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:

2.1. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gaitzen duten egiaztagiriz guztiak begiratu dira.

2.2. Gainerako egiaztagirietatik begiratu da elementuen lagin bat, zeinak gutxienez portzentaje hau de populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

- Egiaztagiriz hamar edo hamar baino gehiago badira: 100eko 100.
- Egiaztagiriz hamar baino gehiago eta hogeit hamar edo hogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 70.
- Egiaztagiriz hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.
- Egiaztagiriz berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.
- Egiaztagiriz ehun baino gehiago badira: 100eko 20.

- I) Certificación Bai Euskarari o Bikain: 3 puntos.
- J) Contratos temporales en plantilla < 20 %: 3 puntos.

Artículo 6. Cuantía máxima de la subvención.

En las respectivas convocatorias anuales se indicará la cuantía de las subvenciones convocadas, siempre teniendo en cuenta el límite de los créditos a los que han de imputarse las subvenciones, que tendrán el carácter de cuantía máxima.

El importe máximo de la subvención que puede otorgarse a cada solicitante, dentro de la cuantía convocada, no superará el 75 % del coste del proyecto, ni sobrepasará los tres mil euros (3.000 €) de subvención.

El valor del punto será el resultado de dividir el importe total de la subvención establecida, entre los puntos asignados al conjunto de las solicitudes admitidas.

La subvención se abonará en dos partes. Una primera parte que supondrá un 50 % de la subvención concedida y una segunda parte final que quedará condicionada a la justificación del gasto realizado.

Artículo 7. Forma de Pago.

Las aportaciones dinerarias se realizarán, tras la presentación de la documentación requerida de la siguiente manera:

- Un primer pago del 50 % tras la presentación de la documentación referida en el punto 10.
- Un segundo pago del 50 % restante tras la presentación de la documentación referida en el punto 8.

Artículo 8. Cuenta justificativa simplificada.

1. La cuenta justificativa contendrá la siguiente información:

1.1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

1.2. Una relación clasificada de gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, y de las fechas de emisión y de pago, que se justificará en los términos indicados en el artículo anterior.

1.3. Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

1.4. Carta de pago del reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

2. El órgano concedente comprobará una muestra de justificante de gasto que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. La respectiva convocatoria determinará el volumen de elementos a comprobar respetando los límites que a continuación se indican:

2.1. Se comprobarán todos los justificantes que superen individualmente el 25 por 100 del importe de la subvención concedida.

2.2. Del resto de los justificantes se comprobará una muestra de elementos que al menos suponga el siguiente porcentaje respecto del número de elementos de la población total:

- Si el número de justificantes fuera inferior o igual a diez: 100 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a diez e inferior o igual a veinte: 70 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a veinte e inferior o igual a cincuenta: 40 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a cincuenta e inferior o igual a cien: 30 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a 100: 20 por 100.

3. Laginaren hautaketa ausazkoa dela bermatzeko, honoko hautapen-prozedura honi jarraituko zaio:

3.1. Populazioa osatzen duten elementuen kopurua zehaztuko da, eta kopuru horretatik kanpo utziko dira beren kopurua dela-eta begiratuko direnak.

3.2. Egiaztagiriei zenbakia jarriko zaie justifikatzeko kontuan pertsona onuradunak aurkeztu duen gastuen zerrenda sailkatutako hurrenkeraren arabera.

3.3. Zehaztuko da zein den hautatu beharreko lagina osatuko duten egiaztagirien kopurua, dagokion deialdian, laguntza emateko erabakian edo hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

3.4. Populazio osoa eratzen duten elementu-kopurua laginaren elementuez zatitzearen emaitza aterako da, eta dezimalak borobilduko dira hurbilen dagoen zenbaki osora.

3.5. Laginaren lehen elementua hautatuko da, kalkulatu-tako zatiketaren emaitzaren arabera.

3.6. Laginaren gainerako elementuak zehaztuko dira aplikaturik progresio aritmetiko bat zeinaren arazoia kalkulatu-tako emaitzaren berdina den.

4. Gastu-frogagirien lagina osatzen duten gastuak behar bezala justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafikokorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gaine-rako agiriak aurkeztu beharko dira eta horiek, aurreko 3.2 puntuan aipatzen den zerrendan sartuta egon beharko dute. Agiri horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren orde-natuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera.

9. artikulua Diru-laguntzaren bateragarritasuna.

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu be-rrako jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala eta guztiz ere, zenbatekoak ezingo du, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, lagundutako jardueraren kostua gainditu.

10. artikulua. Dokumentazioa.

Proiektua onartua eta finantzatua izan dadin, enpresa inte-resdunak honako dokumentazio hau aurkeztu behar du.

- Proiektuaren izena.
- Enpresaren datuak (Izena, jarduera, langile kopurua, hel-bidea).
- Enpresaren jardueraren deskripzio laburra eta beraren his-toriaren laburpena.
- Egin beharreko lanaren deskripzio laburra. Justifikazioa eta egokitasuna.
- Proiektuaren helburu orokorra.
- Proiektuaren helburu espezifikoak.
- Egin beharreko lanaren arazoiketa eta zioak, adierazirik zergatik jotzen den lan esperimentaltzat, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioeztapena enpresarentzako irtenbideentzat.
- Proiektuaren abiapuntua eta beraren bidez zein helmuga-tara iritsi nahi den.
- Proiektua garatu eta amaitzeko ze baliabide behar diren.
- Ebidentzia objektiboak neurtu ahal izateko proiektuaren era-ginkortasuna eta aprobetxamendua, eta proiektuaren balidazioa.
- Hala badagokio, genero ikuspegia txertatu izanaren justi-fikazioa, eta Bai Euskarari eta/edo Bikain ziurtagiria.

3. Para garantizar que la selección de la muestra es alea-toria se seguirá el siguiente procedimiento de selección:

3.1. Se determinará el número de elementos que compo-nen la población, excluyéndose de dicho número los que por su número se observen.

3.2. Los justificantes se numerarán en la cuenta justificativa por orden de clasificación de la relación de gastos presentados por la persona beneficiaria.

3.3. Se determinará el número de certificaciones que inte-grarán la muestra a seleccionar, de acuerdo con lo establecido en la correspondiente convocatoria, acuerdo de concesión o con-venio.

3.4. Se obtendrá el resultado de dividir el número de ele-mentos que componen la población total por los elementos de la muestra, redondeando los decimales al número total más pró-ximo.

3.5. Se seleccionará el primer elemento de la muestra en fun-ción del resultado de la división calculada.

3.6. El resto de elementos de la muestra se determinarán aplicando una progresión aritmética cuya causa sea igual al re-sultado calculado.

4. Para la adecuada justificación de los gastos que cons-tituyen la muestra de justificantes de gasto, deberán presentarse facturas y demás documentos de valor para el tráfico jurídico mer-cantil o eficacia administrativa, que deberán estar incluidos en la relación a que se refiere el punto 3.2 anterior. A dicha documen-tación se acompañará la documentación del pago del gasto.

Estos documentos originales se presentarán ordenados se-gún el número de orden asignado en la relación numerada.

Artículo 9. Compatibilidad de la subvención.

La subvención concedida por el Ayuntamiento es compati-ble con cualquier otra recibida para el mismo fin.

No obstante, el importe no podrá exceder, por sí solo o en con-currencia con otras subvenciones, el coste de la actividad subven-cionada.

Artículo 10. Documentación.

Para la aceptación y financiación del proyecto, la empresa interesada deberá de presentar la siguiente documentación:

- Nombre del proyecto.
- Datos de la empresa (Nombre, actividad, n.º de trabajado-res/as, ubicación).
- Breve descripción de la actividad que desarrolla y resu-men histórico de la empresa.
- Breve descripción del trabajo a realizar. Justificación y per-tinencia.
- Objetivo general del proyecto.
- Objetivos específicos del proyecto.
- Argumentación y motivos del trabajo a realizar, argumen-tando por qué considera como trabajo experimental, prototipado y de soluciones o servicios innovadores, y a su vez, la validación de las soluciones del prototipado y servicios para la empresa.
- Punto de partida, así como meta a alcanzar por medio de dicho proyecto.
- Recursos necesarios para el desarrollo y finalización del proyecto.
- Evidencias objetivas para poder llegar a medir la eficiencia y el aprovechamiento del proyecto, así como la validación del proyecto.
- En su caso, justificación de la incorporación de la perspectiva de género, y certificados Bai Euskarari y/o Bikain.

– Gizarte Segurantzak egindako lan bizitzaren txostena eta kontratu finkoen kopurua zehazten duen enpresaren ziurtagiria.

11. artikulua. *Organo eskudunak diru-laguntza emateko prozedura inon inon eta ebazteko.*

– Organo instruktorea: Deialdian egingo da izendapena.

Balorazio-batzordea: Deialdian zehaztuko da batzordearen osaketa. Batzordearen osakeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.

– Ebazpena: Alkateak edo Udaleko Gobernu Batzordeak egingo du, une bakoitzean Udalaren antolaketan administratiboan indarrean dauden eskumenen eta eskuordetzen arabera.

12. artikulua. *Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea.*

Diru-laguntza emateko ebazpenak adierazi beharko du zer enpresari ematen zaion eta zer zenbaterako duen.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea izango da gehienez 6 hilabete, eskabidea egin den egunetik kontatuta.

13. artikulua. *Emandako diru-laguntzen publikitate.*

Udalak egingo du emandako diru-laguntza guztien publikitatea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan aurreikusten den moduan.

Enpresa onuradunak ere zabalduko du proiektuaren finantzazioak, dela beraren moduan dela beraren iraupenean, duen publikotasuna eta Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo finantzazioaren publikotasunari buruzko legendak txertatuko ditu karteletan, plaka oroigarrietan, ikus-entzunezkoetan, komunikabideetan, beste finantzazio-iturriei ematen zaien garrantzia berdintsuarekin, eta uneoro betetzen dituelarik udalaren hizkuntza-politikako eta berdintasunaren irizpideak.

14. artikulua. *Emandako diru-laguntza justifikatzeko epe arrunta.*

Justifikazioa aurkezteko epea deialdian bertan zehaztuko da. Hala ere, luzapena eman ahal izango da, interesatuek hala eskatzen badute. Diru-laguntzaren emateko ebazpena jakinarazi aurretik egindako gastuen frogagiriak onartuko dira, baldin eta frogagiri horiek deialdiari dagokion urteko ekitaldikoan egindako gastuenak badira.

15. artikulua. *Ez-betetzea eta administrazio-zigorak diru-laguntzen esparruan. Zigorretako prozedura.*

Arau-hausteak izan daitezke arinak, larriak edo oso larriak.

– Arau-hauste arinak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56. artikuluan daude jasota.

– Arau-hauste larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 57. artikuluan daude jasota.

– Arau-hauste oso larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikuluan daude jasota.

Arau-hauste horiei azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 59. eta hurrengo artikuluetan adierazten diren zigorrak dagozkie.

16. artikulua. *Ahalmena.*

Ahalmena ematen zaio alkateari Ordenantza honetan edozein motatako mudantzak sartzeko, baldin-eta mudantza horiek badira nahitaez aplikatu beharreko legezko aldaketak eta berekin dakartzanak baldintzak aldatzea edo zenbaterakoak edo porzentajeak automatikoki ordenatzea. Mudantza horiek berehala jakinarazi behar dizkio osoko bilkurari, honek berretsi ditzan.

– Informe de vida laboral expedido por la Seguridad Social junto con el certificado de la empresa especificando número de contratos fijos en plantilla.

Artículo 11. *Órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención.*

– Órgano instructor: La designación se efectuará en la convocatoria.

Comisión de valoración: La composición de la comisión se determinará en la convocatoria. Se garantizará una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la composición de la Comisión.

– Resolución: corresponderá a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local, conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

Artículo 12. *Contenido y plazo en que será notificada la resolución.*

La resolución de concesión deberá expresar la empresa beneficiaria a la que se le otorga la subvención y su cuantía.

El plazo máximo para la resolución y notificación del procedimiento será de 6 meses desde la fecha de solicitud, de acuerdo con el artículo 25.5 de la LGS.

Artículo 13. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

El Ayuntamiento hará publicidad de todas las subvenciones concedidas en el modo previsto en el artículo 18 de la ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

La empresa beneficiaria así mismo difundirá el carácter público de la financiación del proyecto, tanto en su forma como en su duración, como la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Tolosa o leyendas relativas a su financiación pública en carteles, placas conmemorativas, audiovisuales, medios de comunicación, y con análoga relevancia a la empleada respecto de otras fuentes de financiación, cumpliendo en todo momento los criterios municipales en política lingüística y en materia de igualdad.

Artículo 14. *Plazo ordinario de la justificación de la subvención concedida.*

El plazo para presentar la justificación será fijado en la correspondiente convocatoria sin perjuicio de la prórroga que pudiera concederse a la solicitud de las empresas interesadas. Se admitirán los justificantes de los gastos realizados con anterioridad a la notificación de la resolución de concesión siempre que correspondan a gastos ejecutados en el ejercicio natural a la que corresponde la convocatoria.

Artículo 15. *Incumplimiento y sanciones administrativas en materia de subvenciones. Procedimiento sancionador.*

Las infracciones se tipificarán en leves, graves o muy graves.

– Las infracciones leves son las contempladas en el artículo 56 de la ley 38/2003, de 17 de noviembre.

– Las infracciones graves son las contempladas en el artículo 57 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

– Las infracciones muy graves, son las contempladas en el artículo 58 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

A dichas infracciones corresponderá las sanciones señaladas en los artículos 59 y siguientes de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

Artículo 16. *Habilitación.*

Se habilita a la alcaldesa para que inserte en esta Ordenanza cualquier tipo de modificación que responda exclusivamente a cambios legales que han de ser aplicados obligatoriamente y que conlleven una alteración de los requisitos o ordenación automática de cuantías o porcentajes, teniendo que dar cuenta inmediatamente al pleno a efectos de su ratificación.